

## TRENEN ETA BILBOKO TRANBIAREN ZERBITZU BEREZIAK IGANDEAN ATHLETIC CLUB – FC BARCELONA PARTIDUA DELA ETA

Igandean, otsailaren 10ean, Euskotrenek trenen eta Bilboko tranbiaren zerbitzu bereziak eskainiko ditu Athletic Club – FC Barcelona partidua dela eta. Tranbian mozketa burutuko da ere, 22:11tik 22:58ra. Mozketa hori Bilboko Udalak koordinatutako udal Emergentsia Planaren barruan dago

### TRENA

Partidu aurretik zerbitzua, Bermeotik eta Eibartik Atxurira eta Txorierrin zerbitzu erregularren bitartez eskainiko da.

Partiduaren ostean, zerbitzu berezia eskainiko da Txorierriko linean

- Kukullaga – Lezama 23:04an
- Lezama – Kukullaga 22:38an

L3 linean ere, zerbitzu bereziak eskainiko dira:

- Matiko – Kukullaga: 23:02an, 23:15ean eta 23:30ean
- Kukullaga – Matiko: 23:04an, 23:14an, 23:17an, 23:28an eta 23:43an.

### TRANBIA

Atxuritik La Casillarako 15 minutuko zirkulazioez gain, Euskotrenek Atxuritik Ospitalera 20:06an eta Pio Barojatik Ospitalera irtengo diren zenbait zerbitzu berezi ere eskainiko ditu ondorengo orduetan: 19:44an, 19:59an eta 20:29an.

Partiduaren irteera modu egokian egiteko, 22:11tik 22:58ra bitartean, gutxi gorabehera, zerbitzuaren mozketa partziala burutuko da La Casilla eta Euskalduna artean. Behin mozketa bukatuta Atxurirako eta La Casillarako tranbiaren zirkulazio bereziak martxan jarriko dira.

Partiduaren ondoren San Mamesetik hurbil dauden geralekuetan pilaketak ekiditeko, Euskotrenek Euskaldunako geralekura joatea aholkatzen du. Geraleku horretatik tranbiaren zerbitzu bereziak irteten dira. Bilboko tranbiarako sarrera errazagoa eta azkarragoa izan dadin, Euskotrenek ordaintzerakoan Barik erabiltzailea gomendatzen du.

Informazio gehiago lortzeko asmoz, erabiltzaileek 944 333 333 telefono zenbakira dei dezakete, tranbiaren [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) web gunea kontsulta dezakete, edota twitterreko @euskotrenEJGV gunean eta Euskotrenen APP ofizialean

Igorpen data: 2019ko otsailaren 7an

*Euskadi, auzolana, bien común*

